



Pil-pilean

TOKIOA

Soraluzeko hilabetekaria
2022ko urtarrila - 382 alea



BIKAIN ZIURTAGIRIA
EUSKARAZKO ZERBITZUA ZIURTATUTA
UDALEAN



PIL-PILEAN 382

2022ko urtarila

Azaleko argazkiaren egilea:
Egoitz Unamuno.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa Helena Xurio | IRITZIA |
| 6 | Begira Eli Lakuesta | 3 Neuretik David Lindemann
<i>Whatsapp, bizitza?</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 18 Gutunak Irupe Berasaluze
<i>Debabarrena indartu</i> |
| 14 | Argazki bidez Oreka Art | 18 Komiki tira |
| 16 | Ugaraxo Plaentxi Eskolatik agurra | 19 Hausnarketa Udala eta hizkuntza |
| 20 | Erreportajea Etxegabeentzako aterpetxea | 19 Puntua Maite Garmendia Gallastegi
<i>Antsietatea</i> |
| 26 | Kirola Futbola eta kickboxinga | |
| 27 | Kultura Korrika, Highline argazki erakusketa | |
| 28 | Historia Igancio Pintadoren eskutik, Mesedeetako jaiak | |
| 30 | Nondik nora? Markel Arizaga Begil | |
| 32 | Publierreportajea Amaia Amorrén Izpi Yoga zentroa | |
| 34 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

SORALUCE



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Whatsapp, bizitza?



DAVID LINDEMANN

Ez daukat Whatsappik. Nire mugimenduak, ohiturak, nire kontaktuen sarea Marc Zuckerbergen inperioarekin partekatatu nahi ez ditudalako. Hura aberasten lagundu ez dudalako nahi. Arrazoi beragatik, Facebook ere ez dut inoiz eduki eta ez dut izango. Facebook ez izatearren arazoren bat izan dut, baina tira, kontua zabaltzeko beharrik ez dut inoiz sumatu. Watsapparena ezberdina da: inork gutxi ez du whatsapp eta batzuetan latzak dira whatsapp taldeetan izena ez ematearen ondorioak. Txertoari uko egitearen pare, pentsatu nuen aurrekoan: Multinazional handien presioaren aurrean zeure burua entregatu nahi ezagatik, entxufatzea onartu duen beste baten laguntzaz lortu behar dituzu gauzak. Senideak haserretzen zaizkizu, semearen pilota partidura ezin baitzara joan, futboleko txapelketara garraioa antolatzen parte hartzerik ez baituzu. Aita, arraroa zara, beste guztiek egiten dute, barren. Eta zeure kapritxoagatik ezin izan naiz beste guztiekin joan.

Bestalde, Whatsapp edo txertoari uko egitea ezin da konparatu. Euren produktuen helmena ahalik eta gehien areagotzea da enpresa akziodunen asmo bakarra, hori bai, eta intsumisioa zigortu egiten da bi kasuetan, eguneroko jardueretara sarbidea murriztuz. Bi kasuetan, gaian aditua izan gabe, arriskuak eta desabantailak suma daitezke. Adituen arabera, aldiz, oso ezberdintzat jo behar dira bi intsumisio motak: Biologoek gehiengo handi batek txertoa gomendatu bitartean, Pfizer edo Modernaren soldatapean ez egonda ere, informatiko orok argituko dizkizu zeure bizitza munduko enpresa handienekin partekatzearen ondorioak, sektoreko enpresa handien soldatapean ez badago, behintzat. Txertatzeko aginduaren aurrean zer egin erabakitzea zaila egiten zait horregatik, baina online kontuak non eduki nahi ditudan erabakitzea, eta non ez, erraza. Datuen subiranotasunaz eta pribatutasun digitalaz eztabaidatzen denaz jabetzen hasita, are errazago. Eta alternatiba hobeak badaudela jakinda, guztiz erraza, irabazi asmorik gabeko komunitateak kode irekian sortutako, pribatutasuna eta datuen burujabetza errespetatzen dituzten alternatibak, alegia. Twitter baino hobe da Mastodon, Facebook baino hobe da Diaspora, eta Whatsapp baino hobe da Signal. Pribatutasun eta funtzionalitate aldetik, Telegram ere hobe da Whatsapp baino, eta bitarteko soluzioa izan daiteke, Telegrameko jabearen enpresak burtsan kotizatu arte.

Burujabetza digitala aldarrikatzeari ez diot kontraindikaziorik ikusten. Hasteko: Whatsapp kentzea. Urrats txiki bat norberarentzat, pauso handi bat gizarterako. Futbol taldeek-eta whatsapp uzteko, masa kritika txikia baino ez gara izan behar. Apuntatzen?

**BATZUETAN LATZAK
DIRA WHATSAPP
TALDEETAN IZENA EZ
EMATEAREN
ONDORIOAK**

“Sorginkeria aitzakia izan zen komunitate bat jazartzeko”

TESTUA: ELGOIBARKO BARREN. ARGAZKIA: A. URMENETA.

Helena Xurio historialaria (Zugarramurdi, 1970) lagun hartuta, “sorgin ehizari” buruzko komiki-liburua ondu du Asisko Urmenetak: ‘Sugarren mende’. Bertan, Espainiako Inkisizioak XVI eta XVII. mendeetan Nafarroan erlijioaren izenean burutu zuen jazarpena kontatzen du. Gaur, barikua, aurkeztuko dute Gaztetxean liburua, 19:00etatik aurrera.

Asko idatzi da sorgin ehizaz, baina zerbaiten falta igarri duzue zuek argitaratzeko, ezta?

Liburua prestatzen hasi ginenean, konfiantzazko lagun batek hori bera galdetu zidan: baina, ez al dago dena kontatua dagoeneko? Ez. Hasteko, ez dago monografia seriorik edo liburu akademikorik euskaraz. Bibliografia aunitz bada beste hizkuntzetan, baina horietan ez da kontatzen Nafarroa Garaian gure arbasoek bizi izan zuten jazarpena. Narratiba nazionala falta da.

Zer da desikasi beharko genukeena?

Lan hipotesi onartezin bakarra da gure arbasoak sorginak zirela. Eta gurean, ohar etnografiko batzuk eman izan dira, baina ikuspegi integrala falta izan da. Aspaldi hasi ziren Zugarramurdiko herritar batzuk gogoetan. Batetik, kezkatzen zituen nola zabaldu zen mitologia oso bat oinarri historiko handiegirik gabe, eta bestetik, nola ari ginen sortzen beste mitologia bat horren inguruan, erranez sorgin haiek emakume askeak zirela eta praktikatzen zituztela sexu librea eta halakoak. Aitzakia bat izan zen sorginkeria. Hilketak guzti haiek modu antolatua eta sistematiko batean egin zituzten.

Trama oso bat asmatu zuten beraz. Zergatik?

Inkisizioa salbuespeneko auzitegi politiko bat izan zen, sortu zutena ezabatzeko eskualde, erresuma eta estatu ezberdinetan indarrean ziren berme legalak, adibidez forua, erregearen eta herriaren arteko kontratuzko legea. Momentu jakin batean, Espainiak inbaditu eta okupatu zuelarik Nafarroa, traban zituen lider sozial, ekonomiko eta politiko asko, baina jabetu zen ez zuela hain erraza haiek paretik kentzen, foruak

indarrean zeudelako, eta horregatik, zerbait asmatu beharra izan zuten. Eta sekulakoak asmatu zituzten: euskaldunek besteen odola xurgatzen zutela, besteen bihotzak atera eta kozinatzen zituztela, apo pozoinduak erabiltzen zituztela edabeak egiteko... Eta noski, delituak hain ziren larriak, hain ziren kriminalak euskaldunak, salbuespeneko legeak aplikatu behar zitzaizkiela, foruen gainetik. Auzipetu haiek Logroñora eraman zituzten eta hizkuntza arrotz batean epaitu. Gure arbasoek, baina, dena ukatu zuten, ez baitzekiten sorgin izatea zer zen ere, eta orduan, torturapean erranarazi zizkieten egin ez zituztenak eta kantarazi zizkieten beste izen batzuk. Oso gauza modernoa dena, bide batez esanda.

Emakume bat ageri da liburuko azalean ispiluari begira, eta sorgindutako bat ari zaio handik begira.

Erakargarria zaizkit Akerbeltz eta erratz gainetan hegaka dabilzan atsoak, baina hori dena gezurra da. Azaleko irudian, gure arbaso bat ageri da aginte makila eskuan duela. Torturatu egin zituzten, hizkuntza arrotz batean epaitu zituzten, umiliatu zituzten eta hiru belaunaldiz zigortu zituzten haien familiak. Are, epaituekin batera, epaiketa prozesuari zegozkion agiri eta froga guztiak ere erre zituzten, masakrearen neurria ezkutatzeko. Gu, hala ere, ispiluaz beste aldera gaude oraindik. Ez dugu kontatzen ahal gure iragana, ez dugu narratiba nazionalik. Euskal curriculumak ez du aurrera egiten, ez dugulako agintzen, ez gure hezkuntzan eta ez beste deusetan. Mexikon, adibidez, inork ez du hitz egiten arbaso sorginez. Han, oso argi dute Kolonialismo espainiarra ezartzeko bidea izan zela inkisizioa. Nafarroa okupatuan, urtero-urtero, ezin konta beste lagun sarraskitu eta erre zituzten mende batez. Baxenabarrerren kasua, beste bat da. Baxenabarre subiranoa zen garai horretan, eta mende horretan, hango errege-erreginak zirelarik agintzen eta forua indarrean zela, ez zen kasu bakar bat ere eman. Beraz horrek erran nahi du sorgin ehiza ezin dela konkistaren logitatik kanpo ulertu.



Eli Lakuestaren Iana Eibarren

ARGAZKIA ETA TESTUA: UBANE MADERA
ZANGITU

Eibarren, Ipuruan, Eli Lakuesta Gorosabelen (Soraluze, 1929-2000) argazki bat ipini dute, beste hainbatekin batera.

Lakuestaren argazkiak 1965eko Bicileta Eibarresaren azken etapa erakusten du. Ezkerretik eskumara, KAS taldeko honako txirrindulariak azaltzen dira: J. Jimenez, E. Velez, J. Galera, A. Gomez del Moral, S. Elortza, D. Langarica, Gabika, A. Barrutia, A. Gonzalez eta J.J. Sagardui.

Argazkia ipini eta gutxira, berau ikustera joan zen Lakuesta familia, hunkituta. Honakoa adierazi dute: "Gure etxean, beti da hunkigarria bere lanak plazaratzen direnean. Bera izan zena eta bere pasioa izan zen argazkilaritzari errekonozimendu bat da eta guretako ohore bat. Oroimena eta transmisioa gauza handia dira, izan zirenak beti iraun dezaten."







Udal Gobernuaren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin onartu zen aurrekontua.

Milioi bat pasa inbertsioetara

Aste honetako eguaztenean onartu zuten 2022rako udal aurrekontua; horren arabera, 5.559.504 euro izango ditu Udalak aurten erabiltzeko; kopuru horretatik 1.040.902 euro inbertsioetarako izango da.

Herenegun, eguaztena, osoko bilkuran onartu zen 2022ako udal aurrekontua, Udal Gobernuaren aldeko botoekin (EAJ eta PSE-EE) eta EH Bilduren abstentzioarekin. Horren arabera, Udalak 5.559.504 euro izango ditu, iaz baino %29,27 gehiago.

Inbertsioetarako kopuru handia

Handia da inbertsioei zuzendutako kapitulua: 1.040.902 euro. Kopuru horretatik handiena Kalebarren 8ko etxea -Udalak bereganatutakoa- zaharbertzera bideratuko da: 113.976 euro. Bigarren handiena, berriz, kiroldegi ganean eguzki plakak ipintzeko

izango da -90.000 euro- eta hirugarrena, beste 90.000 euro udaletxeko teilatua konpontzeko.

Iker Aldazabal alkateak emandako xehetasunen arabera, berezko diru-sarrerez gainera, aurten, Udalak beste bi diru-sarrera garrantzitsu izango ditu inbertsioetarako.

Diputaziotik milioi bat euro pasa

Bata da Gipuzkoako Foru Aldundiak Soraluzerendako aurreikusi dituen inbertsioak.

"Kanpotik sekula etorri den dirulaguntzarik handiena emango du Diputazioak aurten. Batetik, 700.000 euro, Ekonomia eta Sustapen sailetik, SAPA eremua birgaitzeko.

Bestetik, 341.926 euro emango ditu Gizarte politiken departamentuak Kalebarren 8ko proiekturako. Azken kopuru horri Udalak ipiniko dituen 100.000 euro pasa gehituta, Kalebarrenego lokala egokitzeko lain lortuko litzateke. Behin egokituta, lokalaren erabilera nagusia langabeziari aurre egiteko zerbitzuetarako izango bada ere, bestelako erabilera ugari ere izango ditu: emakumeak ahalduzko beharretarako, Open gela modura, auzo-komunitateen erabilerarako, Bizikalek erabiltzeko...", esplikatu du alkateak. Hark gaineratu du Diputazioak eman berri dituen beste bi laguntza gehituta, guztira, foru aldundiak 1.118.400 euro bideratuko dituela Soraluzera.

500.000 euroko kreditua

Udalaren kanpoko bigarren diru-sarrera, berriz, 500.000 euroko 15 urterako mailegua da. "Udalak baliabide murriztak ditu. Legealdi honetan kreditua eskatzen den lehen aldia da; beharrak zeintzuk diren badakizkigu baina dirua behar da. Kredituari esker, urteetan pendiente zeuden inbertsioak aktibatu egingo dira", esplikatu du alkateak.

Oposizioaren irakurketa

Hain justu, kreditu horren eskaerak eragin du, bestek beste, oposizioako EH Bilduren abstentzioa. Unai Larreategi bozeramaleak azpimarratu du Udalean "apenas" gelditzen dela "dirurik inbertsioetarako", gogora ekarriz "urteak" daramatzatela hori "errepikatzen", eta, dio Udalaren "egoera ekonomiko horren ondorioz" eskatu dela

kreditua. Larreategik "ondo" ikusten du "energia inbertsioetarako zorpetzea", baina uste du ez dela "seinale ona" "kaleen mantenurako" zorpetzea.

Bestalde, oposizioko bozeramaleak jakinarazi du aurrekontuan Udal Gobernuak "hasieratik" jaso dituela "EHBilduk azken urteetan aurrekontu eztabaidetan mahai gainean jarri izan dituen gainean jarri izan dituen hainbat proposamen", batzuk aipatzearen, "kiroldegiko energia efizientziarako inbertsioak, udaletxeko teilatuaren konponketa eta kableatu elektrikoaren berriztatzea". Jakinarazi du, baita ere, EH Bilduren bi proposamen berri onartuta daudela aurtengo aurrekontuan: "herriko negozioetan erreleboa hartzen duenarentzat 3.000 euroko laguntza zuzena -guztira, 6.000 euro daude onartuta" eta "efizientzia energetikoa hobetzeko egiten diren eraikinen birgaitzeetarako %90eko hobaria obra lizentzietan".

Eta iaiztik egiteke dauden proiektuak ekarri ditu gogora:

Inbertsioak

Kalebarren 8	455.902
Eguzki panelak	90.000
Udaletxeko teilatua	90.000
Irisgarritasuna	60.000
Asfaltatzea	50.000
Eremu urbanistikorako	50.000
Eraisketa lanak	50.000
Kirol inbertsioak	35.000
Nekazal inbertsioak	35.000
Argiteria instalazioak	20.000
Bizikidetzat egitasmoa	15.000

"U" gaina estaltzea zein komun publiko berriak.

Kalebarrenerakoa gehiegizkoa

Osterantzean, oposizioko koalizioari "gehiiegizkoa" iruditzen zaio Kalebarrenen "50 m2-ko bi gela ateratzeko 450.000 euro inbertitzea. 4.500 euro m2-ko oso goitik dago Soraluzen lokal komertzialek duten kostu orokorrarekiko".

Bestalde, SAPArako 700.000 euroko laguntzarekin lotuta, Larreategik adierazi du hura jasota ere, beste 400.000 euro falta direla eskuartean duten proiektua gauzatzeko. Halaber, oposizioko buruak ez du argi ikusten SAPA eremua birgaitzeko bideratu behar den diruari (milioi bat euro pasa) aterako zaion "errendimendua" nahikoa izango den, herrian dauden beharrak kontuan hartuta, "SAPA ondo geratuko da, baina diru asko da" dio.

"Marjina txikia"

Patricia Borinaga gobernuko kide sozialistak, berriz, Kalebarrengo proiektua defendatu du esanez, "garrantzitsua" dela lokalari emango zaion erabilerarengatik eta kontuan hartuta Udalak duen gaitasun ekonomiko txikia, eskaintzen diren "finantzaketa aukerak aprobetxatu" egin behar direla uste du. Bestalde, gogora ekarri du Udalak berez, "marjina txikia" duela aurrekontuan. "Diruaren %60 Foru Funtsetik dator eta gehiena da langileen soldatetarako, mantenu gastuetarako eta gastu korronterako; gutxi geratzen da inbertsioetarako".

Bukatzeko, Udal Gobernuko alderdiek EH Bilduri eskertu egin diote izan duen "jarrera eraikitzailea".

13 ume jaio ziren iaz

2021an Soraluzeko bizilagun kopurua jaitsi egin da, erroldaren arabera. 2022ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, 3.847 da Soraluzeko oraingo errolda. Iazkoarekin alderatuta -3.904- 57 bizilagun gutxiago ditu herriak orain.

49 hildako

Datuak xehatuta, berriz, deigarria da 2021an jaiotza kopuruak eman duen beherakada, izan ere, 13 ume bakarrik jaio ziren. Hil, berriz, 49 lagun hil ziren.

Bestalde, aipagarria da, baita ere, pertsonen artean izaten den joan-etorri handia. Zentzu horretan, datuak orokorrean begiratuta, 2021ean 178 alta izan ziren udalerrian eta 264 baja. Bajen kasuan, kopuru horren barruan daude, adibidez, joan-etorrian dabilzan etorkinak, kanpora bizitzera joan diren soraluzetarrak, egoitzaz aldatu eta beste herriko batera joan direnak... eta beste.

Euskara ikastaroak

Udaleko Hizkuntza Politikaren Batzordeak euskara ikasteko oinarrizko ikastaroa antolatu du herrian bizi diren eta euskararekin harremanik izan ez dutenentzat. Otsailean hasiko da, ekainera arte, eta doakoa da. Izena emateko epea zabalik dago. 60 orduko ikastaroa da. Eskolak martitzen eta eguen goizetan dira.



Oihana Hernandez musu ematen Txisko Asensiori, autoa oparitzeagatik.

1.000 bisitatik gora egunero

2020an, pandemiarekin batera, 400.000 bisitariren langa gainditu eta 423.081 bisita izan zituen Plaentxia.eus atariak. 2021ean, apur bat behera egin dute bisitek eta 400.836n bisita izan ditu herriko atariak.

Plaentxia.eus-ek herriko albisteen eta gertakarien berri izateko erreferentziazko medioa izaten segitzen du. Horixe diote 2021eko audientzia datuek. Haien arabera, urte osoan, guztira, 400.836 bisita izan zituen herriko atari digitalak, batez beste, egunean, 1.098 bisita. Hori ia iazko beste da, nahiz eta pandemiarekin batera handitu zen albiste gosea apaldu eta irakurleen interes nagusiak ez izan COVIDarekin lotutakoak, aurtengo albiste ikusien zerrendak erakusten duen moduan.

Covida, kartel arrazista...

2021eko Albiste ikusien artean, koronabirusarekin

lotutakoa izan zen bisita gehien jaso zituena, ikas-bidaiatik bueltatu ondoren konfinatu beharra izan zuten 55 ikasleei buruzkoa, hain justu; baina gainerako albiste ikusienek bestelako gaiekin izan zuten zerikusia. Bigarren albisterik ikusiena, esaterako Errekaldeko farmazian txinatarren kontra ipini zuten kartel arrazistarena izan zen; hirugarrena, neskalgunari autoa oparitu eta hura lazo handi batez dotoretuta zubian eman zion istorioarena; laugarrena, Jose Mari Gomez hil zenean egindako agur idatzia eta bosgarrena abendu hasieran, saihesbidera jausi zen luiziarena.

Erredakzioaren eskerrona

"Ez da nolana hikoia 3.847 bizilagun dituen herriko komunikazio atariak egunero 1.000 bisita baino gehiago jasotzea. Ez eta webgunean eta aldizkarian kaleratu diren albisteetako askoren berri herritarrek eurek eman izana ere. Ahaztu barik, 2021ean, hogeitaka lagunek idatzi dituztela musutruk iritzi-artikuluak eta hileroko ehundik gora harpidedunek jasotzen dutela aldizkaria herritik kanpo. Bada zerbait.

Horregatik guztiagatik erredakzio taldeak eskerrik beroenak eman nahi dizkie irakurleei, kolaboratzaileei, bazkideei, harpidedunei, erakundeei eta iragarle diren komertzio eta enpresei. Denen artean herri-komunikabide hau posible egiten duzuelako".

Ikusienak

1. Covida ikasbidaian 2.194
2. Txinatarren kontrako kartela 2.178
3. BMWa opari 2.083
4. Agur Jose Mari 1.694
5. Luizia 1.527
6. Gaztañerreko bideoa 1477
7. Diru barik etxera 1.409
8. Ortu publikoak 1.328
9. Asier eta Iñakiren ekitaldiko bideoa 1.232
10. San Blas eguna 1.220
11. Pertsona bat atera dute igogailutik 1.193
12. Umeendako boxeo eskolak 1.160



Juan Mari Gurrutxaga azoka plazako arrain postuan, martitzenean.

Aurten itxiko du arrandegia

Arrandegiko ugazaba Juan Mari Gurrutxagak erretiroa hartzea erabaki du eta, oraingoz, ez dago inor arrandegiarekin jarraitzeko prest.

Arrandegia itxeko datarik izan ez arren, Juan Mari arraindunak argi dauka aurten negozioa itxi egingo duela. Erretiroa aurreratuko du eta, momentuz, ez du inor arrandegiarekin jarraitzeko prest egongo denik.

Mugimendurik ez eta zailtasunak Gurrutxaga bera ere ezkorra da arrandegia moduko denda txikien etorkizunarekiko. Adierazi du berak "mugimendua" ikusiko balu, prest legokeela beste pare bat

urtez-edo arrandegiarekin segitzeko, baina egoera orain dagoen moduan ez duela merezi: "Ez dabil ia jenderik, pandemiaren eraginaz aparte, kanpoan erosten da larregi, Internetez ere bai... Horrez gain, gazteak beste mentalitate batekin datoz. Bestalde, gero eta zailagoa da denda txikiari eustea. Ticket Bai dela, langileak kontratatzeko zailtasunak direla... Administrazioak ez du batera erraztasunik ematen. Ni oso ezkorra naiz denda txikien etorkizunarekiko. Ez bada ezer aldatzen, hemendik 10 urtera denak edo ia denak itxita egongo dira. Adibidez, Eroski baletor, ederra mesedea herriarendako. Herrian bertan erosten duen jende mugimendua handitu egingo litzateke, batez ere, hemen, herriaren goi alde honetan".

14 harategi eta bost arrandegi Herrian eman den jaitsieraren adierazle diren bi datu gaineratu ditu Gurrutxagak: "Nik arrandegia zabaldu nuenean, orain dela 37 urte, herri honetan bost arrandegi eta 14 harategi zeuden".

Odol ateratzeak egiteko zehaztu dituzte aurtengo egunak

Urteko lehen hilabetearekin batera egin dute 2022ko lehen odol ateratzea, arrakasta handiarekin egin ere. Izan ere, 47 herritar bertaratu ziren Itzaropena Nagusien Elkarteko aretora odol ekarpena egitera.

Soraluzen ohi denez, urtea bukatu arte, bi hiletik behin etorriko dira odol ateratzeak egitera.



Odola ematen, urtarrilean.

Egutegia

- Martxoaren 25ean
 - Maiatzaren 20an
 - Uztailaren 22an
 - Irailaren 23an
 - Azaroaren 25ean
- Pandemia egoera aldatu arte, odol ateratzearen egunean txanda hartu behar da odola ematera joateko, 08:30etik 13:30era: 943 007884.



Udaleko hainbat langile Bikain Ziurtagiriarekin.

Zilarrezko ziurtagiria

Gaur egun, Soroluzeko Udala gai da herritarrei zerbitzua euskaraz edota gazteleraz eskaintzeko. Hori baieztatu du eskuratu berri duen zilarrezko Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Duela hiru hamarkada abiatu zuten euskararen normalizazio prozesua herri administrazioek, eta ordutik, egoera "asko" aldatu da Soroluzeko Udalean ere, "hobera", Mikel Leunda euskara teknikariaren esanetan. "1990ean lehen plangintzaldia martxan jarri zenetik euskararen presentzia eta erabilera nabarmen areagotu dira Udalean eta emaitzak agerikoak dira. Herritarrak berak aukeratutako hizkuntzan jardun lekaze Soroluzeko Udalarekin, ahoz nahiz idatziz, eta udal barruko harremanetan ere euskara lan-hizkuntza da geroz eta gehiago". Hala baieztatu du Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriaren

ebaluazio prozesuak ere eta Soroluzeko Udalari zilarrezko maila eman dio.

Ahoz egiten da gehiago

Gaur egun, Udalak komunikazioa zein hizkuntzatan jaso nahi duen galdetzen dio herritarrari, dela lehen hitza euskaraz eginez edota dokumentuan bertan harremana zein hizkuntzatan bideratu nahi duen galdetuz. Herritar euskalduna, "ahoz, oro har, euskaraz zuzentzen zaio Udalari", Leundak adierazi duenez. Idatzizkoan, "eskaera sinpleak eta korreo elektronikok" dira euskaraz gehien idazten direnak baina "adinak zerikusi handia du eta

ikasketak euskaraz egin ez dituen euskaldunak nahiago izaten du idatziz elebitan jasotzea". Bestalde, Leundak nabarmendu duenez, "Udalak herriko elkarte gehienekin euskara hutsez jarduten du".

Euskara hutsezko praktikak

Hain zuzen, etorkizunera begira, euskara hutsezko jarduna indartzea da Udalean erabilera indartzeko gako nagusietako bat: "Ohitura handia dago oraindik gauza asko elebitan egiteko. Hori aldatzen hasi beharrean gaude eta hasi gara. Alde horretatik, dagoeneko badira euskaraz bakarrik egiten diren lan-jardunak, herritarrek harremanerako hizkuntza hori aukeratu duten kasuetan. Hainbat administrazio-atalek gainera ia euskara hutsean dihardute egunerokoan. Azkena hartutako erabakia, esate baterako, Tokiko Gobernu Batzarreko bilerak eta aktak euskara hutsean egitea izan da. Helburua da euskaraz egin daitekeena euskara hutsean egitea eta kanpoko entitate pribatuekin ditugun gaztelerazko harreman batzuk aldatzea".

Langileen eta zinegotzien ezagutza gako

Langileen eta zinegotzien ezagutza da faktore garrantzitsuenetakoa. Langileen ezagutzari dagokionez, 1997tik, kontratazio berri guztiek

**UDALAK
KOMUNIKAZIOA ZEIN
HIZKUNTZATAN JASO
NAHI DUEN GALDETZEN
DIO HERRITARRARI.**



Bingen Zubiria, Iker Aldazabal eta Iñigo Urkullu ziurtagiriaren banaketa ekitaldian.

egiazatu behar dute bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna eta, ondorioz, azken urteotan, langileen ezagutza maila nabarmen hobetu da. Hala, gaur egun, Udalaren 27 langiletatik 25ek egiaztatua dute euren lanpostuari dagokion eskakizuna (nahiz langileren batek trebakuntza behar) eta 2 langile bakarrik dira egiaztapen hori ez dutenak.

Ordezkarri politikoen ezagutzari dagokionez ere, azken urteotako bilakaera positiboa izan da eta gaur egun 11 zinegotzietatik bakarra da euskaraz oinarritzko elkarrizketak ulertzeko gaitasunik ez duena. Leundaren esanetan, "zinegotzi guztiek ulermen maila izateak asko erraztuko luke erabilera planaren garapena".


Zilarrezkoa lortuta, urrea helburu
Udalak abenduan jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren zilarrezko Bikain Kalitate Ziurtagiria, Iñigo Urkullu lehendakariaren eskutik Gasteizko Europa Jauregian egin zen ekitaldian. Bikain ziurtagiriak erakunde publikoen nahiz pribatuen hizkuntza maila neurtzen du eta Soraluzeko Udalak 700-750

puntu eskuratu ditu eta urrezkoa eskuratzeko 50 puntura gelditu da (800 puntu behar dira urrezkoa eskuratzeko eta gehienez 1.000 puntu eskura litezke).

Talde ebaluatzaileak nabarmendu du azken urteotan Udala euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko egiten ari den lana. "Denbora gutxian garapen handia izan du. Entitateak, alkatearen lidergo eta jarrera sendoa dauka eta erabakiak hartzeko organoetan kide egokiak eta motibatuak daude", dio ebaluzio txostenak. Hobetzeko atalean, Udalari gomendatu diote hainbat prozesu gehiago sistematizatzeko, langileen hizkuntza prestakuntza orokorraz hausnartzeko eta kanpoko entitate publiko eta pribatuekin jarrera proaktiboz jokatzeko.

Leundaren esanetan, "Ziurtagiriaren prozesua oso baliagarria izan da egindako lanaren emaitzak zein izan diren ikusteko eta hobetu beharrekoak zein diren jakiteko". Etorkizunera begira, urrezko ziurtagiria eskuratzeko izango da helburu.

Esanak



Alaitz Quintas. UDAL-LANGILEA

Eskaini "Urtebete da inprimaki guztietan ipini dugula hizkuntza hautatzeko laukitxo eta ordutik igerri da igoera, idatzizkoan".



Mikel Leunda. UDAL-TEKNIKARIA

Hautatu "Herritarrek euskarazko harremana hautatzea oso lagungarria da Udalean euskararen erabilera areagotzeko".



Iker Aldazabal. ALKATEA

Lortu "Poztekoa da udal-langile guztien lanari esker ziurtagiria lortu izana. Etorkizuneko erronka urrezkoa lortzea da".

Diferentea

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO.

Juan Ayesta, Juan Manuel Arruabarrena, Vicente Iriondo, Manolo Oyonarte eta Txiki Agirre Keixeta artisten artelanak ikusi ahal izan dira ekainean hasi eta urtarrilera bitartean, Oreka Art galeriak programatu dituen hileroko erakusketetan. Alberto Ramirezek pasioz beteta ekin dio galeriaren ibilbide berriari eta hilabeteotan artelanen joan etorriak ez du etenik izan.

"Soraluze moduko herri baten halako arte galeria bat izatea luxua da" esaldia entzuten da kasik hilero, erakusketa bakoitzaren inaugurazioan, eta "ez dago artelanak ulertu beharrik, ikusi eta sentitu, besterik ez" esaldia ere askotan. Bi esaldi horiek akuilu izan dira niretzat hileroko zita artistikora gogotsu joateko eta, egia esan, leku horretan gauza diferenteak ikusi eta entzun ditut aldiro.





11 + 11 = 22

HEZKUNTZA

TESTUA: PLAENTXI HLHI

ARGAZKIAK: PLAENTXI HLHI

Hamaika urte badira, Pil-Pilean aldizkarian Ugaraxo izenburua zuen atala azkenekoz argitaratu zenetik.

Hezkuntza sisteman hamaika urte, urte asko dira.

Herriko haurrek hamar urte ematen dituzte eskolan. Jakingo duzuen bezala, gure eskolan matematikan trebeak gara eta problemek eta kalkuluek ez digute hutsik egiten.

Ikus dezagun: "Eskolak Pil-Pileanen zuen partaidetza orain dela hamaika urte eten bazen eta ikasleek hamar urte ematen badituzte herriko eskolan, zer gertatu da eskolatik pasa diren bi belaunaldiekin?"

Etetea eteteko momentua

Beharbada izango ditugu Ugaraxo ezagutu ez duten bi belaunaldi, baina jakin badakigu, belaunaldi horien egungo beharrei erantzutea izan dela, herriko eskolan, hezkuntza berriztatze prozesu bati ekiteko abiapuntua.

Eta hona heldu gara. Hogeita bigarren urtera.

Badakizue, hamaika gehi hamaika hogeita bi.

Eta badirudi hamaika urteko etete hori eteteko momentua ere iritsi dela. Eta hori, gaur egun horrelakoez hain beharrean gaudenean, izatez albiste ona da.

261 familia, 376 ikasle...

Komunikabideak jarraitzen ditugu eskolan. Noski. Hezkuntza inguruko albisteak irakurtzen eta ikusten ditugu eta baita beste gauza askoren inguruko albisteak ere.

Eta argi dugu, ez gara gu izango zoraraziko zaituzten datu festa bat partekatuko ez dugun bakarrak. Beraz, hemen dituzue Plaentxi HLHI hezkuntza komunitatea osatzen dugunon datuak. Hamaika baino handiagoak diren zenbakiekin, baina guk ere zenbakiak erabiliko ditugu:

Eskola komunitatea 261 familiaz, 376 ikaslez, 49 irakaslez, 11 jangelako langilez, 3 garbitzailez eta konpontzaile batez osatuta dago. Aurtengo haurren ikasturtea 175 egunetakoa izango da eta euren ikasketa jarduna, berriz, 879 ordukoa.

Gero eta haur gutxiago

Ez dira datu asko, baina nahikoa gure ustetan. Eta orain badakizue, datu horiek jasota, etengabe ikusten dugun moduan, bakoitzak bere onerako izango diren ondorioak

BADAGO BEHIN ETA BERRIZ ENTZUTEN DUGUN DATU BAT. JAIOTZA-TASA BEHERANTZ DOA

aterako dituela. Baina badago behin eta berriz entzuten dugun eta erreala den datu bat. Jaiotza-tasa beherantz doa.

Egun eskolan dauden 10 belaunaldietatik, kopurutsuena 55 haurrek osatzen dute. Hortik aurrera, gero eta haur gutxiago, salbuespenak salbuespen. Eta datorren ikasturteari begira, 2 urteko gelan matrikulatzeko dagoen ume kopurua 18koa da. Ondorioak norberak atera ditzala.

"Herriari emango diogu hitza"

Hemendik aurrerako partaidetzetan, datuak alde batera utzi eta herriari emango diogu hitza. Zuekin partekatuko ditugu eskolan gertatzen diren gertaerak, eskolan egiten ditugun jarduera desberdinak. Orduan, zergatik esan dugu herriari emango diogula hitza? Ez litzake egokiago izango hitza eskolari emango diogula esatea? Hemen sekula ahaztu ezin dezakeguna: herria da eskola osatzen duena eta nola ez, eskola herriko oinarrietako bat.

Zuekin komunikatzea

Gauzak horrela, esperantza bat dugula agurtzen zaituztegu. Hona gure desioa: herriko aldizkariaren bitartez, makina bat urtetan zuekin komunikatzea, Pil-Pileanek kaleratzen dituen urteroko hamaika + bat zenbakietan.



LH 6. mailako ikasleak gelan.



Bi ikasle irakurtzen.



Esperimentuak egiten, lupekin.



Esperimentuak egiten, landareekin.

GUTUNAK

Debabarrena indartu**IRUNE BERASALUZE LAZKANO**

EAJKO LEGBILTZARKIDEA

Debabarrena eskualde industrialia izan da historikoki, eta, horri esker, ongizate sozioekonomiko handia izan du. Ekintzailatza eta lankidetzaz izan dira gure bereizgarriak. Balio horiek nabarmendu nahi ditugu, bizi dugun atzeraldi-egoeratik ateratzeko.

Urte batzuetatik hona industriari indarra galdu du Debabarrenean; eta horri biztanleria-galera nabarmena gehitu behar diogu. Gainbehera 2008ko krisiarekin hasi zen, eta, orain, areagotu egin da COVID-19aren pandemiaren ondorioz.

Gure eskualdearen bilakaeraz kezkatuta, egoerari aurre egiteko Eusko Legebiltzarrean ponentzia bat sortzeko beharra

ikusi dugu. Helburu horrekin, eskualdeko erakunde eta eragileekin diagnostikoa partekatu ondoren, ekimena aurkeztu dugu.

Alde batetik, gure bailararen izaera industrial nabarmena kontuan hartu da, enpresa eta enplegu ugari sortu baititu. Enpresak ixtearen ondorioz, Debabarrenean trakzio-enpresak eta tradizioz indartsuak izan diren sektoreak mantentzeko funtsezko ekosistema industrial arriskuan dago. Horregatik, funtsezko bi erronkari egin behar diegu aurre: industria-sarea biziberritzeko beharrezko prozesuari eta inbertsio- eta berrinbertsio-proiektu berriak erakartzeari.

Bestalde, biztanleria-galera handia izan dugu, % 15,6koa. Bestalde, populazioaren zahartzea agerikoa da, beste

leku batzuetan baino nabarmenagoa.

Azkenik, eskualdeko orografiak hiri-garapen konplexura eraman gaitu. Industria txikiak eta enpresak hiriguneetatik ateratzeak birsortzeko premia handia duten auzoak utzi dizkigu, kasu askotan, esku-hartze integralaren beharra dutenak.

Hori guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da eskualdearen egoerari aurre egitea, hori Legebiltzarrean aztertu eta gero biziberritze-prozesua abian jartzeko. Euskadiren lurralde-garapen orekatua nahi dugu, eta, horretarako, ezinbestekoa da gure eskualdeen aldeko apustu irmoa egitea, jarduera ekonomiko indartzea, bizikalitatea bermatzea eta hobetzea. Egungo polarizazio-erak hautesko dituen lurralde-proiektua sortzea da kontua.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Hizkuntza eta Udala

Udalak euskaraz edota gazteleraz komunikatzeko aukera eskaintzen die herritarrei.



OLATZ LARREATEGI
HERRITARRA

Nik Udalarekin izan dudana harremana euskaraz izan da, bai ahoz eta bai idatziz. Etxeko obren baimenak, errolda agiriak, kontsultak, baserritarren bilerak... dena. Alde horretatik, uste dut udaletxeak egin behar duena egiten diharduela.



FERNANDO ALBERDI
HERRITARRA

Ondo iruditzen zait herritarri zerbitzua berak nahi duen hizkuntzan ematea. Nik harrerako langileekin euskaraz berba egiten dut beti. Idatzizko harremanak berriz, gazteleraz egiten ditut, euskaraz idazteko orduan ez naizelako ondo moldatzen.



BITTOR MURGUZUR
HERRITARRA

Badakit bai Udalak harremanak euskaraz izateko aukera ematen diela herritarrei eta normala iruditzen zait, hala behar du. Nik, egia esan, gehienetan gazteleraz egiten dut, errazago moldatzen naizelako. Batez ere etxebizitzarekin lotutako kontuengatik joan izan naiz.



EZOI ARRILLAGA
HERRITARRA

Azken urteotan batez ere dantza taldeko kontuengatik izan dut harremana Udalarekin, bai idatzizko dokumentuekin baita bileretan ere, teknikari edo zinegotziekin. Denak egin ditugu euskaraz. Beharrezkoa iruditzen zait Udalak bi hizkuntza eskaintzea.

PUNTUA



MAITE GARMENDIA
GALLASTEGI

Antsietatea


Azkenaldi honetan bizi dugun egoera honek egunerokotasunean eduki ditzazkegun momentu onak bilatzera bultzatzen gaitu. Edo behintzat, toki askotatik heltzen zaizkigun edo irakurtzen ditugun albiste tristeengandik ihes egiteko irtenbide baten bila bultzatzen gaitu.

Egoera horrek norberaren buruarekiko gainkarga bat sortzera eraman gaitzake eta gure bidean aurrera egin beharrean, geldi gelditu garen sentazioa daukagu.

Eta ez dakigu nola jarraitu aurrera. Edo behar dugun laguntza hori ez dakigu nondik lortu. Antsietateari aurre egitea ez delako batere erraza eta antsietatearekin lotutako gero eta kasu gehiago agertzen doazelako egunak pasa ahala. Nahiz eta ezin dugun ahaztu azken bi urte hauen aurretik ere egoera berdintsua zela, baina agian, tabutzat hartzen genuela antsietateari buruz berba egitea. Hau da, ez zegoela azalean, bistan.

Norbait gaizki ikusten genuenean, "estres" handiarekin, alegia, lanari edo egunerokotasunaren errutinari leporatzen genion egoera horren arrazoa.

Hori dela-eta, pertsona askok bizi duten egoera hori ikustarazteko eta beharrezkoa duten laguntza jasotzeko zerbait egin behar dugula uste dut.



Etxegabeentzako aterpea zabaldu dute

Eibarko karmeldarren elizan (Karmen kalean) kokatzen den neguko aterpeak abenduaren 1ean ireki zituen ateak, eskualdeko etxegabeei zerbitzua eskaintzeko asmoz. Ohea, higiene pertsonala, arropa garbitzeko aukera eta jatekoa ematen diete urteko hilabeterik hotzenetan.

Testua eta argazkiak:
**Debarreneko
Komunikazio Taldea**

Debabarreneko Gipuzkoako udalek, hau da, Debak, Eibarrek, Elgoibarrek, Mendarok, Mutrikuk eta Sorauluzek, etxegabeei ostatu emateko neguko dispositiboa jarri dute martxan. Iraganen zenbait saiakera egin dira horrelako zerbitzuak eskaintzeko, baina orain arte ez dute proiektu komunik garatu ahal izan eta pozik daude egitasmo honek izan duen harrerarekin.

Eskualdea "zorretan"

Idoia Sarasketa Eibarko Udaleko Gizartekintza saileko arduradun politikoak dioenez, "gai horretan eskualdea zorretan zegoen", nahiz eta azken urteotan zenbait proposamen eta ekintza egin diren.

"Orain dela hiru urte neguko aterpea ireki genuen Eibarko Azitain kalean dagoen Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan, baina ikusi genuen ez zela tokirik egokiena. Iaz, Matxaria kalean Udalak dituen etxebizitza batzuetan eta Untzaga Hotelean aterpe zerbitzua eskaini genuen; eta, pandemia hasi zenean, Deban dagoen Santiago Bideko ostatua etxegabeentzako ireki zuten", azaldu digu zinegotziak. "Debarrena osoari ematen zitzaion zerbitzua, baina ez zegoen toki askorik. Ekintza puntualak izan ziren, protokoloa 3 gradutik jaisten zen egunetan aktibatzen zen", gehitzen du.

Erantzun integrala eman nahian

Salbuespenetik harago joan eta beharrari erantzun integrala emateko asmoz, aterpea Eibarko karmeldarren elizan ezartzeko



Eibarko Karmen kalean dago aterpetxea, Karmeldarren etxean.

aukera sortu zen eta erlijiosoek parez pare ireki zizkieten atear proposamenari, instalazioak doan eskainiz. “Asko eskertzen diegu keinua eta, gauzak ondo, akordioa urte gehiagorako luzatzeko aukera izango dugu”, diosku Sarasketak. Momentuz aterpea ez da urte osoan zehar egongo zabalik, neguan bakarrik, baina eskualdeko udalen zorra arintzeko balio izango du eta Sarasketak esan digunez erakundeak “harro” daude lortutakoarekin.

14 plaza arrunt

Neguko aterpeak 14 plaza arrunt ditu gaua non pasatu ez dutenentzat. Zerbitzua jaso nahi dutenak eskualdeko udaletako gizarte zerbitzuekin, gizarte hezitzaileekin, Gurutze Gorriarekin, Osakidetzarekin, Caritasekin, udaltzainekin edo Ertzaintzarekin harremanetan jarri behar dira, eta egunero erabiltzaileen zerrenda bat osatzen du Eibarko Udaltzaingoak. 20:00etan amaitzen da izena emateko epea, baina norbait beranduago agertzen bada eta plazaren bat libre badago, sartzeko aukera izaten du. Horrela, erabiltzaileek gaua pasatzeko aukera izaten dute, hilean bost aldiz gehienez.

Hotz handia bada, plaza gehiago

Azken egunetan bezala hotz handia egiten duenean, sei plaza gehiago jartzen dituzte eskuragarri. Gainera, egonaldi ertaineko beste lau plaza daude, "baina plaza hauek lortzeko gizarte langileek

**EGUNERO
ERABILTZAILEEN
ZERRENDA BAT
OSATZEN DU EIBARKO
UDALTZAINGOAK**

**HOTZ HANDIA EGITEN
DUENEAN SEI PLAZA
GEHIAGO JARTZEN
DITUZTE
ESKURAGARRI**



Goiko argazkian, aterpetxeko erabiltzaileek erabiltzen duten jangela.

Beheko argazkian, sukaldea.

ERABILZAILEAK BI INTEGRATZAILE ETA HEZITZAILE BATEN BEGIRADAPEAN DAUDE ATERPETXEAN

erabiltzaileen txostena egin behar dute eta erabiltzaileek euren bizitza bideratzeko konpromisoa hartu behar dute", azaldu digu Sarasketak.

Baldintzak

Plaza arrunt bat lortzeko baldintza hauek bete behar dira: norberaren higieneari eta zentroko higieneari buruz langileek emandako jarraibideak betetzeko konpromisoa hartzea, jokabide-nahasterik ez edukitzea edo bertako elkarbizitza normala larriki nahas dezakeen portaerarik ez izatea, ospitaleratzea eskatzen duen gaixotasun fisiko edo psikologikorik ez edukitzea, eta zerbitzuak eskaini ahal ezin dituen osasun-laguntza espezializatuen beharra ez edukitzea. Gainera, bizikidetzak egokia izateko zenbait arau jarraitu behar dituzte.

Aterpearen funtzionamendua

Aterpetxeak 20:00etan irekitzen ditu atea goizeko 10:00ak arte, eta atea gurutzatu bezain laster teknikariek harrera egiten diete erabiltzaileei. Erabiltzaileek COVID protokoloa bete behar dute une oro eta sarreran armairu batzuk dituzte euren

gauzak lagatzeko. Eskailerak igotzean (igogailua ere badago) jangela, sukaldea, garbiketarako gela eta logelak aurkitu ditzakete, eta balkoira irteteko aukera dute nahi izanez gero. "Logelak bi ohekoak dira, komunarekin, baina behar izanez gero sei oheko logela familiarra ere badago", esan digu Sarasketak.

Bi integratzaile eta hezitzaile bat

Erabiltzaileak bi integratzaile eta hezitzaile baten begiradapean daude aterpetxean, eta euren beharrei erantzuna ematen saiatzeaz gain, arazoak ekiditeko edo konpontzeko daude. Horrez gain, sukaldari batek afaria eta gosaria prestatzen ditu, eta garbitzaile bat dago.

Eskaerak gora urtarrilean

Aterpea zabaldu zutenean, abenduaren lehen astean, ez zuten erabiltzaileerik jaso, baina handik aurrera jendea etortzen hasi zen.



Aterpetxera doazenei lagatzen zaien logeletako bat.

“Horrelako kasuetan ahoz ahokoak funtzionatzen du, jendeak horrela izan du batez ere zerbitzuaren berri”, diosku Sarasketak. Abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten eta, batez beste, pertsona bakoitzak bi gau egin zituen. Abenduan, erabiltzaile gehien egon ziren egunetan sei lagun elkartu ziren, baina urtarrilean hotz gehiago egin du eta egun batzuetan 11 lagun elkartu izan dira.

Bizikidetzak ona

Zinegotziak esan digunaren arabera, hara eta hona dabilen jendea etortzen da aterpetxera, horrelako zerbitzuak hilean bost aldiz erabili ahal izaten dituztelako gehienez eskualde guztietan. Horrela, jatorri ezberdinetako jendea elkartzen da, baina euren arteko bizikidetzak ona dela esan digu Sarasketak. “Gainera, orain dela gutxi emakume bat izan dugu, nahiko gauza arraroa dena, eta ez da inongo bizikidetzak arazorik egon”, dioenez.

Pozik harrerarekin

Erakundeak pozik daude aterpetxearen egitasmoak izan duen harrerarekin eta eskaintzen duen zerbitzuarekin, eta datorren hilabetearen eskualdeko udal-teknikariak aterpetxean elkartuko dira bere funtzionamendua gertutik ezagutzeko. “Gainera, herritarrentzat atak ireki nahi ditugu ondoren, gaia ondo ezagutzeko eta kontzientzia hartzeko”, amaitu du zinegotziak.

Aterpetxearen deskribapen laburra

Debarrenen aterpetxeak 14 plaza arrunt ditu, beste sei plaza gehiago erabili daitezke hotz handia dagoenean eta baditu beste lau plaza egonaldi ertainekoak. 20:00etan irekitzen ditu atak goizeko 10:00ak arte, eta atea gurutzatu bezain laster teknikariek harrera egiten diete erabiltzaileei. Aterpetxean bi integratzaile eta hezitzaile bat daude, baita sukaldaria eta garbitzailea ere.

Zabaldututenean, ez zen inor bertaratu, baina abenduan 13 erabiltzailek 71 gaualdi egin zituzten, batez beste, bakoitzak bi gau. Abenduan, erabiltzaile gehien egon ziren egunetan sei lagun elkartu ziren, baina urtarrilean hotz gehiago egin du eta egun batzuetan 11 lagun elkartu izan dira.

"Larrialdietarako etxebizitzak ere badaude"

IRANTZU BENITO GIZARTE ZERBITZUETAKO ARDURADUNA

Irantzu Benito Gizarte Zerbitzuetako Soraluzeko teknikariak eman ditu larrialdi egoeretarako dauden etxebizitza zerbitzuei buruzko xehetasunak: **Aterpetxea erabiltzeko herri bakoitzeko kupoa dago?** Ez, guztira, 14 leku daude, hotz handiarekin, 6 gehiago. Orain, adibidez, plaza gehiago aktibatu dira. Hilabetean bost gau pasa daitezke, baina eguraldi-alertaren bat aktibatzen bada, gau gehiago pasa daitezke. Bestalde, hemengo aterpetxean pasa daitezkeen gau guztiak pasa ondoren, aterpetxe behararekin segitzen dutenak beste aterpetxe batera joaten dira. Eta hilabete pasa eta gero berriro ere buelta daiteke aterpetxe berberera, leku libreak baldin badaude.

Soraluzetik bidali da norbait?

Oraindik ez. Eman zaio informazioa pertsona bati, baina ez zuen joan nahi izan.

Zein da protokoloa?

Behar duen pertsonak eska dezake. Beste edozein ere etor daiteke abisatzen kalean pertsona bat dagoela. Eta larrialdi zerbitzu guztiek (Ertzaintza, Udaltzaingoa...) dute zerbitzuaren berri eta haiek ere abisa dezakete. Eskaerak Eibarko Udaltzaingoari ematen zaizkio ze eurek dute eskatzaile guztien zerrenda.

Zein baldintza behar dira?

Etterik ez izatea. Ez da behar erroldatuta egoterik eta



halakorik. Erabiltzaile gehienak joan-etorrian dabilzan pertsonak dira. Bestalde, aterpetxeak estantzia Erdiko lau plaza ditu. Kasu horretan, aterpetxearen erabiltzaileak onartzen badu hezitzaileekin-eta prozesu bat garatzea, aukera du zerbitzua itxi arte (apirilaren amaierara arte) bertan egoteko. Baina horretarako, tokian tokiko Udaletako gizarte langileok osatzen dugun batzordeak oniritzia eman behar dio.

Soraluzen ere badaude larrialdietarako etxebizitzak?

Bai. Santa Ana kalean etxebizitza bat eskuratu berri du Udalak larrialdietarako. Bestalde, Eibarrek eta Soraluzek larrialdietarako beste etxebizitza bana dute. Hau da, hona etor daiteke beharra duen eibartar bat edo

"UHOLDEAK, SUTEA...
GERTATU ETA ETXE BARIK
GERATU DENAK ESKA
DEZAKE ZERBITZUA"

beharra duen soraluzetar bat Eibarrera bidal dezakegu.

Zein baldintza behar dira horiek erabiltzeko?

Eibarkoa indarkeria matxista kasuetarako da. Santa Anakoa ere erabil daiteke

halakoetarako. Baina horrez gain, Santa Anakoa larrialdiren batengatik kalean gelditu direnei zuzenduta dago.

Adibidez, uholde, sute edo halakoengatik etxe barik gelditu direnendako, ahurri egoeran dagoen etxetik irten beharra izan dutenendako, familiako konfliktu kasuetan norbere integritate fisikoa arriskuan dagoen

kasuetarako... Larrialdi kasuak Udalean baloratzen dira eta eskatzaileak beste etxe bat lortzeko ezintasuna erakutsi behar du. Eskatzaileari 15 egun baino lehen eman behar zaio ebazpenaren berri. Halako etxebizitzak erabiltzeko erroldatuta egon behar da eta 4 hilabetez erabil daitezke, beste 4 hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Tutoretzapeko etxebizitzak ere badaude, ezta?

Bazterkeria egoeran daudenendako dira. Eskualde mailako zerbitzuak dira eta hezitzaile zerbitzua ere badute. Paperak egiten laguntzen zaie, dirulaguntzak tramitatzen... Helburua da tutoretzapeko etxebizitzatik irtetzen direnean, pertsona horiek euren bizitza euren kabuz egin ahal izatea. 7 hilabetez erabil daiteke, beste hiru hilabetez luzatzeko aukerarekin. Bestalde, halako etxebizitzetan emakumeak badaude, ez dira gizonak sartuko eta alderantziz. Eta animaliak ez dira onartzen.

Armendi Jatetxea

Sukalde tradizionala
Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Karta
Burduntzian erretako bildotsa
Ettxeko fritoa
Soufflea

Tel: 943 75 10 02



ELIZPE HORTZ KLINIKA

Zure genetik horri ikuska, punta puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad Cam sistema berrikalku erabilizten dugu.

Elizburu, 3 behea
SOE, ALLUZE
Tel: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.kl@gmail.com

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



Etxabe Harategia

- Etxera eramaten dira
- Enkarguak hartzen dira
- Sorraluzeko baserrietako produktuek
- Ettxeko irupak eta txistornak

Etxaburuta 5
Telefonoa: 943 75 23 78



IZKUGUIRRE Igeliseritza

Eralkin berriak • Kalitatezko emaitza
Erreforma • Era gutxiatako igeliseritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 649 867 299




JUAN MARI ARRAINDEGIA

Arara Irtekoa
Etxera eramateko zerbitzua
Enkarguak hartzen ditugu

MERKATU PLAZA - 943 75 24 48



TXURITXU GOZOTEGIA

Astelehenetik ostiralera:
08:30-13:00 eta 16:30-20:30

Larunbatak: 08:30-13:30
Igandak: 08:30-14:30

Gosariak, oga, jemma, pastilak, bombonak...
Etxera eramateko zerbitzua

Tel: 943 75 24 43



Jatorren plazarra, berrikalku berria

Batzoki

eguneko menua
asteburuetan
karta eta menuak

oparirik gabeko eta
hamburgiak
enkargu bereziak

famila eta
lagun arteko
buzkarak

Donostia 943 75 20 36



Hortz klinika

Erreal 1
Tel: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.590

Katia Gustinio
Odontologoa
K.Z. 48.001.541

27 urteko esperientzia
odontologia, protesiak,
odontopediatria, ortodontia,
implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko onakorra (3D):
ekinameta, urto eta heldu.



KLB6

Kalebarran 6
943 67 78 26
Makina eta makina
modulugaitza

BSB Pape Jume
VERO MODA

ISOLID
BONICH

AB
new balance



Kontulan

aholkularitza
ABOKATUAK

Errenta, zituerpenak • Administrazioa, lankar
Tratamendu burokratikoa • Lan-urteko aholkularitza
Enpresen kontzultak/ideazioak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. era. 20590 Sorluze
Tel: 943 75 17 80 / Fax: 943 75 01 82



Sorraluzeko Kooperatiba Elkarte

1970etik abiatik

Arraindegia, janaria,
errapak, etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Kalebarran 4
Tel: 943 75 13 45

Astelehenetik ostiralera:
08:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatak: 08:30 - 13:00



MABEL
INEKAPAINDEGIA

Searentzako keratina
tratamendua
Depilazioa
Se-ustrairik gabeko
permanentes
Makilajua
Manikura
erdiraunkortu
Solariuma

Erreal 1
Tel: 943 75 14 89



ION MURGIZU BAKAIKOA PINTOREA

artxuta
dekoratiboko
industrialia

Tel: 943 75 13 24 Mug: 652 77 70 30



MENDIZABAL
okindegia

Ogia • Prentsa • Gosariak

Astelehenetik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta
igandek
08:30 - 13:15

Kalebarran 10
Tel: 943 75 13 99



Carpinteria MANU Aroztegia

Atak
Bostakak
Portakak
Sukaldeak
Tortakak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrena - Mug: 636 05 81 25



Bidelagun euskaltzaletasunean



Kopako txapelketa jokatu du Sorak

Otsailaren erdialdetik maiatzera bitartean jokatu du fase erabakigarria Sorako gorengo mailako taldeak

Ligako lehen fasea bukatzean du Sora Futbol Taldeko gorengo mailako taldeak. Urtarrilean dituen azken partidak bukatu ondoren, otsailaren erdialdetik aurrera hasiko da taldearentzat erabakigarria izango den lehiaketa: Kopako txapelketa.

Ligaxka modura jokatu da Kopako txapelketa eta Sorako gorengo mailak aurkari izango ditu sailkapen orokorrean atzeko postuetan geratu diren gainerako futbol taldeak. Izan



Gorengo mailako taldea.

ere, horien artetik azkena jaitsi egingo da mailaz.

Igoera fasea

Sorako gainerako taldeei dagokienez, berriz, kadete eta jubenil mailako taldeak igoera fasea jokatzen ari dira abenduaren amaieraz gozotik. Orain arte, kadeteen taldeak ez du partidarik irabazi. Jubenilen taldeak, berriz, partida bat irabazi, bat berdindu eta bat galdu egin ditu. Hori horrela, jubenilek aukera handiak dituzte mailaz igo eta ligan sortu nahi duten maila berrira igotzeko.

Osterantzean, Sorako infantil, benjamin eta alebin taldeek berriro ere ekingo diote lehiaketei asteburu honetan bertan, Eusko Jaurlaritzak bertan behera laga baitu lehiaketak jokatzekeo debekua.

Bizkaiko txapelketara

Mouad Hina eta Adur Odriozola soraluzetarrak Open Bizkaia Kikboxing txapelketan lehiatuko dira asteburu honetan

Bihar, urtarrilak 29, Bizkaiko Open Bizkaia kickboxing txapelketa jokatu da Bilboko Miribillan. 200 bat kirolari izango dira, tartean, Mouad Hina eta Adur Odriozola soraluzetarrak. Iurretako Gerlari Team taldeko beste zazpi lagunekin bertaratuko dira.

Gaur, barikua, egingo dute pisaketa saioa. Bihar, berriz, Open Bizkaia txapelketa 10:00etan hasi eta 19:00etan



Hina eta Odriozola.

bukatuko da. Eliminatorioa da, "egunera bertara arte ez dakizu noiz eta zeinen kontra borrokatuko duzun", esplikatu du Mouad Hinak.

Gero, Euskal Herrikora

Edozelan ere, soraluzetar gazteek ez diote horri inportantzia larregirik ematen: "Trabaztera goaz; azken aste honetan entrenamendu orduak jaitsi egin ditugu, lesiorik-eta ez izateko eta txapelketan "fresko" egoteko. Baina aurreko asteetan oso gogor entrenatu dugu".

Emaitzak emaitza, dagoeneko beste hitzordu bat badute buruan bi soraluzetarrek, Euskal Herriko txapelketa: "Uste genuen orain zela, baina ez, lehenengo Bizkaikoa da. Euskal Herrikoa, ezustekorik ez bada, martxoan izango da".

Korrika apirilaren 1ean Soraluzen

Soraluzen apirilaren 1ean pasatuko da Korrika, 11:00ak aldera. Elgoibartik etorriko da Bergararantz joango.

22. Korrika martxoaren 31n abiatuko da Amurriotik eta apirilaren 10ean amaituko da Donostian, 2.180 kilometroko ibilbidea egin eta gero.

Debarrenera apirilaren 1ean helduko da eta ondorengo ibilbidea egingo du bailarako herrietan barrena, goizez: 08:36an Mallabia, 08:59an Ermua, 09:30ean Eibar, 09:30an Elgoibar eta 10:55ean Soraluze. Kostaldeko herrietatik berriz apirilaren 7an eta 8an pasatuko da, gauetz, 23:20an Mutrikutik eta 00:01ean Debatik.

Hitzekin

Korrikaren leloa *Hitzekin* da eta gizarteari zuzendutako mezuaren lehen parrafoak honela dio: "Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute



Ibilbidearen mapa. KORRIKA.EUS.

hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara, jauzi egingo dutenak".

AEK-k eta Pil-pileanek datozen egunetan egingo dute herrian Korrika Batzordea osatzeko deialdia.

Liburutegia zabalik goizero

Urtarrilaren 10etik, liburutegia zabalik dago goizetan ere. Ordu-tegi berria ondorengo da: astelehenetik barikura, goizero zabalik dago 11:00etatik 13:00etara bitartean eta arratsaldean 16:30etatik 19:30era, barikuetan izan ezik, barikuetan arratsaldean 16:00etan zabaldu eta 19:00etan itxiko da. Aste Santuan, uda eta Gabonetan goizez bakarrik zabalduko da.

Santa eskea baserri baserri

Urtero moduan, aurten ere lagun koadrila aterako da Santa Eskean herriko baserrietan zehar. Iaz bezala, Miren Amuriza eta Iñigo Izagirre bertsolariak gonbidatu dituzte eta herriko bertsolari eta trikitilariekin osatuko dute taldea. Otsailaren 5ean aterako dira eta osasun egoera dela eta, ez dira baserrietan sartuko. .

I. Slackline eguneko argazkiak

Otsailaren 11tik 19ra bitartean ikusgai izango dira iazko Slackline eguneko hainbat argazki; azaroan Udalak eta Slakherriak elkarrekin antolatu zuten lehiaketan saria eskuratu zuten hiru argazkilarienak (Mikel Valero, Fernan Oregi eta Bittor Murguzur) eta beste argazkilaria batzuek ateratako beste 27 gehiago.



MIKEL VALERO.

Nola hasi ziren ospatzen Mesedeetako jaiak



IGNAZIO PINTADO SORALUZETARRA

ARGAZKIAK: IGNAZIO PINTADO

Pil-pilean aldizkariaren irakurzale amorratua da Ignazio Pintado soraluzetarra.

Oraingoan, bera animatu da idaztera. Mesedeetako jaiei buruz idatzi du, Pil-pileaneko 378. alean argitaratutako argazki batetik abiatuta. Izan ere, Pintadok bertatik bertara dakizki jai horiei buruzko lehenagoko ohiturak. Hona hemen idatzia:

50eko hamarkadan hasi ziren Atxuri-Errekalde inguruokak urtero festak antolatzen.

Festan, herri-jolasak, buruhandiak... egoten ziren umeentzat. Zaleentzat, baita, txirindulari lasterketa zegoen. Eta, San Ignacio Musika Banda etortzen zen dantzarako. Behin edo behin, bertso saioak egoten ziren, antzinako usadioan.

Anekdotan moduan, urte batean, *Basarri* handiak, Atxuri kalean zegoen 19. zenbakiko etxeko balkoitik, *Aizpua* izenekotik, kantatzen hasi zen eta, *Uztapidek*, betiko lagunak, Ospitaleko ortuko patiotik kantatu zion.

Festak ordaintzeko, kale horretako auzokoen eta tailerrekoen artean batzen zen dirua, baina gobernuko agintariek trabak jartzen zituzten eta ezin izan ziren festak ospatzen jarraitu.



Eibarko dantzariak Mesedeetako haietan. IGNAZIO PINTADO



Ignazio Pintado egoitzan, bertako egoiliar batzuekin. Mesedeetako egoitza

ETORRI BERRIENTZAKO EUSKARA IKASTAROA

Helburua da euskal gizartea eta kultura ezagutzuz, euskaraz ikasteko lehendabiziko urratsak ematea











Iraupena: 60 ordu. 4 ordu astean. Otsailaren 22tik ekainaren 16ra.
Ordutegia: Astearte eta ostegunetan, 10etatik 12etara.
Matrikula: Debalde.
Izen-ematea: Udaletxeko harreran edo 943 75 30 43 telefonora deituta. Otsailaren 11a baino lehen.
Oharra: Aisa agiriak aukera ematen du Enplegu Planeko kontratazio prozesuetan parte hartzeko.

Antolatzailea:



SORALUZERKO UDALA

Loguntzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Zentzuz erosi.
Ondo informatu zaitez.
Ezagutu zure eskubideak.
Baztertu estereotipoak.**

Zeu zara zure influencer onena.

#KontsumitzenJakin





kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATUJITZA ETX KONTSUMO SAILA DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

"Madrilen gustukoen dudana da gauzak eskurago dituzula"

MARKEL ARIZAGA BEGIL SORALUZETIK MADRILERA

UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: MARKEL ARIZAGA BEGIL

Markel Arizaga Begil (Soraluze, 1987) 2009tik Madril ondoan dagoen Rivas-Vaciamadrid hirian bizi da. Neskalguna (Lara Fernandez-Hijicos, 1988, Madril) hangoa zelako eta Arizagak berak ere han lan aukera gehiago zituelako erabaki zuen hara joatea eta dagoeneko 13 urte daramatza bertan.


"Askatasunaren" probintzian bizi zara. Igartzen da hori?

Baditugu Bartzelonan bizi diren hemengo lagun batzuk eta haiek hona datozenean diote badirudiela hemen ez dela pandemiarik existitzen, ze han oso neurri zorrotzak dituzte ezarrita eta hemen ez. Baina nik esango nuke hemengo askatasun hori asmatutako politika marketing kontu bat dela. Garrantzitsuak ez diren gauzak egin ahal izatea saltzen dizute, baina funtsezkoak berriz ahaztuta daude. Kontestu honetan, adibidez, osasun zerbitzuak abandonatuta daude. Ustezko askatasun hori pribilegiatu batzuek dute, sortutako ilusioa da, besterik ez.

Hitz egin askatasunaz pandemian metroa erabiltzera derrigortuta zeudenei...

Madrilgo alkatea eta komunitateko presidentea ezagun askoak dira, Madrildik kanpo ere. Zelan bizi duzue protagonismo hori?

Asko eragiten du zelan eta zeinek informatzen zaituen. Niri ailegatzeko zaidana da hau dela zirko moduko bat. Baina demaseko zentralizazioa dago. Lehen, dena zen Katalunia eta orain dena da Madril. Badirudi Madril dela munduan existitzen den bakarra. Baina kalean ez da berdin ikusten. Hona etorri nintzenean, nik pentsatzen nuen hemengo pentsatzeko modua oso eskumara mugitutakoa zela. Baina hemen bizitzeko ikusten duzu ez dela horrela. Egia da botere handiko jendeak eskumako ideiekin bat egiten duela, baina pentsamendu hori ez da hegemonikoa. Azkenean, segun eta informazioa nondik eskuratzen duzun, irudi bat edo beste izango duzu. Nik, adibidez, espero nuena baino Madril hobea aurkitu nuen. **13 urte Madrilen. Pentsatzekoa da gustura biziko zarela.**



Bai. Madrilen gustukoen dudana da gauzak eskurago dituzula. Plazentzian zinemara, museora... joateko, mugitu egin behar zara. Hiri handietara, berriz, errazago heltzen dira halako gauzak. Bestalde, eguraldia ere lagungarri da. Euria noizean behin egiten du eta eguzkia da nagusi. Udan bero handia egiten du, baina horrekin ere ondo moldatzen naiz. Gutxien gustatzen zaidana, berriz, jende mugimendu handia da. Hirian kultura, entretenimendu... eskaintza handiagoa izatean, jende gehiago dabil, bizitza presa handiagoarekin bizi da... hori negatiboa iruditzen zait,



Markel eta Lara India alabarekin, Euskal Herrian.

hala ere, ez horrenbeste. Gainera, gu Madrildik 20 minutura bizi gara eta hemen lasaixeago bizi gara.

Amonak kontatu digu zure alabak badakiela euskaraz.

Bi alaba ditut. India da nagusia eta 3 urte ditu eta Onak, berriz, 3 hilabete egitear. Indiari euskaraz egiten diot berba eta ulertu, behintzat, ulertzen du.

Googlek, berriz, dio zuk futbolean diharduzula...

Egia da. Escuela de futbol Rivas-Vaciamadrid ekipoan. 4-5 urte daramatzat taldean jokatzeko. Bigarren erregional mailan gaude. Ni erdilaria naiz. Umeekin zailagoa egiten zait futboleko segitzea, baina momentuz eusten diot.

Etortzen zara Soraluzera?

Egia esan, azkenaldian ez naiz handik pasatu. Igual ia bi urte ez naizela herrian egon. Bueno,

"MADRILEN NIRE BIZITZA ERAIKI DUT ETA GUSTURA NAGO, KUADRILA ERE BADAUKAT"

egon izan naiz egun bat edo bi eta buelta.

Hango familiak ezagutzen du zure jaioterria?


Bai. Emaztea eta biok joaten gara hara. Larak dio gustuko duela. Bertakook diogu Soraluze zatarra dela, baina berari gustatzen zaio.

Baduzu bueltatzeko asmorik?


Ezin da ezetz esan, baina momentuz ez dut buelta ikusten. Oso ondo gaude hemen. Gure artean, emazteak eta biok berba egin izan dugu mugitzeaz, akaso atzerrira joatea... Dena den, orain ya txikiekin zaila izango da.

Akaso Soraluze ya txiki geratu zaizu?

Ez da txikitasun kontua. Hemen nire bizitza eraiki dut eta gustura nago, kuadrila ere badaukat. Hara joanez gero, jendearen, nire lagunaren bizimodua aldatuta egongo da, bakoitza bere familiarekin, lanarekin... ya ez da nik gogoratzen nuen hori izango. Dena den, hemen ondo gaude eta ez dugu behar hori sentitu. Hura nostalgiaren ikuspuntutik ikusten dut. Baina esandakoa, sekula ezin da ezetz esan.



Aupa Donostiarra!



Indiarekin Lozoyan.

Rivas-Vaciamadrid

- Madrilgo komunitateko hiria
- Madril hiriburutik 15 kilometrorara dago.
- 92.925 bizilagun ditu.
- Alkatea da Pedro del Cura Sanchez, IU Rivas alderdikoa, baina Podemosekin eta PSOErekin batera gobernatzen du.

Izpi Yoga Zentroa

ABENDUTIK ZABALIK DAGO SORALUZeko LEHEN YOGA ZENTROA

TESTUA ETA ARGAZKIAK: EGOITZ UNAMUNO LOIDI

Abenduan zabaldu zituen atea Izpi Yoga Zentroak, bere garaian Estaziñoko Bodega izan zen lokalean. Amaia Amor "oso pozik" dago herritarren partetik jaso duen erantzunarekin.

Momentu honetan, hogeita hamar pertsona baino gehiago daude izena emanda eta bost talde ditu martxan. Horietatik lauk, astean bi saio egiten dituzte (goizeko eta arratsaldeko txandetan), eta batek, saio bakarra. "Egokiena da astean bi aldiz egitea, baina badago jendea ezin duena bi aldiz egin baina gogoa daukana etortzeko, eta horregatik eskaintzen dut pase bakarreko taldea ostiral arratsaldetan, leunagoa, egokiagoa dena patologiak dituen jendearentzako", azaldu du Amaiak.

Aurrera begira, intentzioa du ordutegi eskaintza handitu eta

tailer puntualak antolatzeko ere, yoga mota gehiago ezagutarazteko. Horrez gain, buruan du noizbait txikientzako yoga eskaintzeko aukera ere, baina oraingoz daukanari heldu eta "erritmoa hartzea" du lehentasun.

Lanketa fisiko eta espiritual

Izpi Yoga Zentroan yoga integrala eskaintzen dute, alderdi fisikoaz gain espiritual ere lantzen duena. "Helburua da gorputzaren eta buruaren arteko oreka bilatzea, eta geure buruarekin egoten ikastea", zehaztu du. Saioak arnasketa ariketak eginez hasten dituzte eta ondoren datoz hassanak. "Hassanak dira posturak, egin eta desegiten ditugunak modu kontziente batean, gorputzeko atal ezberdinak lantzeko. Adibidez, prostata gizona eta edo hilekoaren minak emakumeetan, bizkarreko minak... Hori dena

egiten da gorputza zabaltzeko eta prestatzeko, ostean meditazio hobe bat egin ahal izateko. Askotan musika ere ipintzen dugu erlajatzen laguntzeko".

Meditazioa da, hain zuzen, alderdi espiritual lantzeko bidea. "Adibidez, meditazioaren bidez ikasten da atentzioa puntu konkretu batera errotan eta hor mantentzen. Norbere buruarekin egoten ikasteak bizitzako gorabeheri aurre egiten laguntzen du. Saioetan, tarteka norbaiti ikutzen dio punturen bat buruan eta igual esterillan dagoela, negarrez hasten da... Halakoetan errespetatu egiten dugu beti eta beharrezkoa bada, ni hurbiltzen naiz laguntzera. Hortik aurrera, norberak lortzen badu lokalizatzea ezinegon hori nondik datorren, ba askoz hobeto, aurre egin ahal izateko".



Parivritta janu sirsana.



Astavakrasana.



Chakrasana.



Amaia Amor Izpi yoga zentroan.

2019an hasitako bidea

2019an izan zuen lehen kontaktua yogarekin. "Filipinetara joan ginen eta bueltan zeozer piztu zitzaidan barruan; yoga egin behar nuela sentitzen nuen". Urrian izena eman zuen Bilboko eskola batean eta bi urtez formatu da yoga integralean. "Nire hasiera belauneko operazio eta lesio batengatik izan zen. Patologia batzuk gelditu zitzaizkidan eta pertsona moduan ere hobetzea nahi nuen. Gaur egunean zein ez da sentitu estresatuta edo noraezean... Yoga praktikatzeak dakartzan onurak probatu nituen eta sekulako engantxada izan nuen. Ez dakit bizitzan

beste ezerekin izan naizen hain konstantea. Yoga integralean

"YOGA INTEGRALAREN HELBURUA DA GORPUTZAREN ETA BURUAREN ARTEKO OREKA BILATZEA"

"MEDITAZIOAREN BITARTEZ IKASTEN DA ATENTZIOA PUNTU KONKRETU BATERA EROATEN"

asko begirutzen da barrura eta niretzat deskubrimendu bat izan zen".

Gero etorri ziren yoga irakasle izateko ideia eta zentroaren proiektua. "Heldu zen momentu bat ikusi nuena ni hain pozik banago eta hain gustura ba igual haujendearekin banatzea nahi dut... Lehenengo ate irekiak antolatu nituen kiroldegian eta jente dezente etorri zen. Hortik hasi eta gero zentroaren proiektuarekin hasi nintzen. Lana laga nuen eta erabaki nuen honetan zentratzea. Lokala alokatu eta aurrera".

Instagram: @izpiyogazentroa
Mug.: 665252540

ZORION AGURRAK



Unai
Urtarrilaren 20an 12 urte. Zorionak Unai! Ondo Ondo pasa. Etxekoak



Aitzol
Urtarrilaren 28an 9 urte. Zorionak Aitzol! muxu handi bat guztion partez!



Ekain Arana Lobato
Urtarrilaren 21ean 2 urte. Zorionak maitxia! Asko maite zaitugu! Patxo haundi haundi bat etxekoan partez!



Mertxe eta Oihan
Zorionak Oihan eta amama! Urtarrilaren 18an eta 21ean 59 eta 3 urte! Jarraitxu elkar zaintzen, besarkatzen. Asko maitxe zaituztegu. Etxekoak.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Margarita Gonzalez Gonzalez
Maria Osa Oruesagasti
Ramon Perez Gonzalez
Begoña Ariznabarreta Azpiri
Teresa Panero Fernandez
Javier Alberdi Urizar

Jaiotakoak

Ez dago jaiotakorik

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

OHARRAK

Zuhaitz landaketa irekia

Otsailaren 5ean, goizez.

09:00etan batuko gara San Andresko aparkalekuan.

Izen-ematea: info@lurguia.org edo soraluzekobasobiziak@gmail.com helbidera idatzia. Otsailaren 3a baino lehen.

Antolatzaileak: Soraluzeko Baso Biziak eta Lurguia Fundazioa.

Almar
Interiorismo

*Iluspindegia
Estetika
Soluzioak*

Gabriel 4. Artea Tel: 943 75 15 83 - 682 51 14 04

FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 15 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com

Txoko

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgesak, ogitortxoak, radiak, pizza, gaztaria...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 88

BOLI
TABERNA

Pisotok, arinak, konbinatuak
Gazte-girako festa

KM design

Kirio Montakak

943 76 09 85

Pol. Amilaga 3 BERGARA

■ Diseinu eta Fabrikazio lanak
Sukotoak
Horma-ornatuak
Logelak
Zonak
Aloak...

■ Arotzeria lanak oro har
■ Instalazioak

kirioamontakak@ymail.com
www.kmdesign.es

ESKELAK

ESKELA

Maria Osa Oruesagasti



2021eko abenduaren 21ean hil zen, 90 urte zituela.

Zure ama bezala; Haize argi baten boladan joan zara, mugaz bestalde, izarretan gora.
Bilatzen zaitugu, baina ez zaude. Zure joanak biluztu gaitu ta isiltasuna igartzen dugu.
Gure bihotzetan egongo zara beti. Gero arte.

Senideak.

I. URTEURRENA

Jose Mari Gomez



2021eko otsailaren 3an hil zen, 62 urte zituela.

Ondoan ez zauden arren, beti bezain gertu sentitzen zaitugu.

Etxekoak eta lagunak.

ESKELA



Maria Ariznabarreta Azpiri



2022ko urtarrilaren 16an hil zen, 93 urte zituela.

Urak dakarrena urak daroa. Zuk ereindakoa gugan erneko da. Eskerrik asko!

Senideak.

ESKELAK JARTZEKO: 943 75 13 04 edo eskelak@pilpilean.eus

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak:

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.

BETI ZUREKIN GIPUZKOA

943 903 450

Bertoko Igoailuak-ekin, urteko 365 egunetan 24 orduz izango duzu gure zerbitzua.
Solbuespenik gabe.



IDEAK
DARRE



ZURE JARDURAK
GUREKIN
BARTARTEAN



ARRAZKATU
GUREKIN

bertako
www.bertoko.eus



GOKI

erreformak



FATXADA BIRGAITZEAK

S.A.T.E.
FATXADA AIREZTATUAK
BIRGAITZE TRADIZIONALA
BALKOIEN BIRGAITZEA



ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK
MANTENTZE LANAK
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK
LOKAL KOMERTZIALAK
BULEGO ETA ENPRESAK
SUKALDE ETA BAINUGELAK



IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA
IGOGAILU INSTALAZIOAK
0 KOTA



BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR
943 74 42 23

SORALUZE
943 12 57 41

BERGARA
943 76 53 42